

2012KO URTARRILAREN 18AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hemezortzia.

HILABETEA: Urtarrila.

URTEA: Bi mila eta hamabia.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortzietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Josi Insausti Mujika

Unai Baztarrika Otegi

ETORRI GABEA: Alfonso Segade González.

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2011ko azaroaren 18ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

2.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA. Erakusketa aretoa eta Usurbe Antzokiaren ustiapena kontratatzeko baldintza plegua onartzea.

Ezagutzera eman dira, Kultura eta Euskera Batzordeak aipatutako zerbitzua prozedura irekiaren bidez eta publizitatearekin kontratatzeko proposatzen duen baldintza pleguaren xehetasunak, hau da: helburua (Erakusketa gela eta Usurbe Antzokiaren ustiapena, programazioa kanpo utzita), lizitazio prezioa (69.072,75 € gehi BEZri dagokiona), kontratuaren iraupena (urtebetekoa luzatzeko aukerarik gabe), kontratistaren betebeharrak eta esleipen irizpideak (prezioa eta jardueren memoria).

Aitor Aldasoro jaunak, baldintza pleguan aldaketa txiki batzuk egitea proposatu ditu, hala nola, edozein jarduera, ez bakarrik kulturazkoak, zinean egiteko aukera izatea, sarrerei buruzko tarifa guztiak Udalak finkatzea, sistema elektrikoaren mantenua ere kontratistaren ardura izatea, aurkeztu beharreko memorian mantentze gastuak sailkatuta aurkeztea eta aurreikusitako bi esleipen-irizpideen balorazioa berdina izatea.

Gobernu Batzordeko kideek proposatutako aldaketa guztiak onartu dituzte.

Unai Baztarrika jaunak, Kultura eta Euskarako batzordeburuak adierazi du, ikusleen jaitsiera kontuan izanda, ezinbestekoa dela zinea eta Usurbe antzokiko gainerako programazio eta jarduerak: Goieniz zinekluba, musika, antzerki amateurra, antzerki profesionala, erakusketak, etab. sustatzea eta indartzea. Eginkizun eta helburu horiek guztiak enpresa esleipendunari agintzeak duen zailtasunagatik, Udalari interesatzen zaio kontratatutako enpresarekin elkarlanean aritzea, zinea sustatzeko programazioaz arduratuz, eman behar diren pelikulei publizitatea eginez eta ikusle gehiago erakartzeko saiakera eginez.

Horren ondorioz, jarraitu du esanez, beharrezkoa da Kultura eta Euskara sailean programazio lanak egingo dituen langile bat izatea, eta eginkizun horretan lanaldiaren %50 aritu beharko luke. Lanaldiaren gainerako zatian sailak antolatutako jardueren jarraipena eta ebaluazioa egitea izango litzateke langile horren egitekoa.

Aldez aurretik egin diren kontratazioekiko aldaketa denez, justifikatuta geratzen da, kontratuaren iraupena bakarrik urte beterako izatea.

Puntu honetara iristean Idazkariak, ohartarazi du, baldintza plegua dagoen moduan onartzeak, langile bat kontratatzea suposatzen duela eta honek abenduaren 30eko 20/2011 Erret dekretu Legegilearen 3.2 artikulua aurka doala (2012. urtean pertsonala kontratatzeke debekua), izan ere nahiz eta horretarako premia dagoela zuritu, ez da esentziazkoa den zerbitzu publikoa eta gehiegi dirudi esatea lehentasuna duen sektorekoa dela.

Aipatu diren helburuekin, baldintza plegua ez onartzea eta kontratazio prozedura martxan ez jartzea, ordea, egun dagoen irregulartasun egoera mantentzea ekarriko luke, hau da, zinea ustiatzen duenak inolako kontratu administratiborik gabe zerbitzua ematen jarraituko luke.

Esandako guztiak kontutan izanda, bildutakoek aho batez onartu dute, baldintza plegua aipatutako aldaketekin onartzea eta deialdi publikoa egitea, kontratazio prozedura martxan jarritz.

3.- ENERGIA ELEKTRIKOAREN HORNIDURA KONTRATATZEA.

Ondorengoaren berri eman da:

I.- 2011ko maiatzaren 13an Gobernu Batzordeak egindako bileran ondorengo erabaki zuen:

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratze zentralizatuko sistemari – Foru kontratazioen zentralari atxikitzea.

2.- Foru Kontratazioen zentralak abian jarri zuen energia elektrikoaren hornikuntza kontratatzeke espedienteari atxikitzea.

II.- Energia elektrikoaren hornikuntza espedienteari atxikitzeak 27 kontratu elektrikoengan izango du eragina (udal eraikin eta argiteri publiko kontratuak) eta hauen gastua gutxi gorabehera, urteko 194.688 eurokoa (BEZ kanpo) da.

III.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluko erabakiaren bidez 2011ko ekainaren 21ean (GAO: 2011/07/01, EBAO: 2011/06/28) baimena eman zen X11028 zenbakiko espedientea - 'Foru Kontratazio Zentralaren bitartez argindarra hornitzeko esparru akordioa (CPA 35.14.10/CPV 09310000-5) burutzeko prozedura deialdia egiteko.

IV.- Espedientea izapidetu eta gero, ebatzi zen Akordio hori IBERDROLA GENERACIÓN, S.A.rekin egitea eta 2011ko urriaren 26an sinatu zen eta 2011ko azaroaren 1rtik aurrera, IBERDROLAk eskainitako prezioak eragina dute atxikitako kontratuetan eta urte betez mantenduko dira.

V.- Prezio berrien eragina Beasaingo udalaren kasuan bataz-beste 10.937 €ko aurrezkoa suposatzen du.

VI.- Kontratuaren iraupena urte betekoa da (2012ko azarora arte) eta nahi izanez gehienez 3 urteko luzapena izan lezake.

VII.- Beasaingo Udala espediente honetara atxikitako erakunde bat izanda eta energia elektrikoaren hornidura beharrezkoa denez eraikinetan, bideetan eta bestelakoetan, hornidura kontratua esleipendun enpresari esleitzea eta kontratua formalizatzea proposatzen da ezarritako baldintzen arabera (aurkeztutako eskaintzak eta baldintza administratiboen eta ezaugarri teknikoen agiriak).

Bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Beasaingo Udalaren beharretarako energia elektrikoaren horniketa, S.A., IFZ A95075586 iFK duen, IBERDROLA GENERACIÓN enpresarekin kontratatzea, Baldintza Administratibo Berezien Orrian, Ezaugarri Teknikoen orrian eta prezio unitarioena eta aldiena, 2011ko irailaren 12koa, "resumen de potencia y energía por tarifas y periodos" izeneko dokumentuaren arabera.

Bigarren. Beasaingo Udalak, IBERDROLA GENERACIÓN, S.A., enpresari ondorengo prezioa ordainduko dio: izandako kontsumoari dagozkion prezioak aplikatuz ateratzen denaren arabera, "hoja de resumen de potencia y energía por tarifas y periodos" delako tarifak kontutan hartuz, gehi BEZa (%18a).

Prezio horren barne daude kontratua osorik betetzeko egin behar diren gastu guztiak ere.

Prezio hori eguneratu ahal izango da 'Foru Kontratazio Zentralaren bitartez argindarra hornitzeko esparru akordioa (CPA 35.14.10/CPV 09310000-5) burutzeko x11028 prozeduran aplikagarri izan zen ezaugarri teknikoaren dokumentuaren 5 atalean dionaren arabera.

Hirugarren. Kontratuaren iraupena urte betekoa izango da, 2011ko azaroaren 1etik kontatzen hasita eta gehienez ere hiru luzapen egiteko aukera egongo da, bakoitza urtebetekoa.

4.- GASTUEN GEHIKUNTZA. Murumendi ikastetxeko behe-solairuko ireskortasuna hobetzeko egindako obrei buruz gastua handitzea onartzea.

Gai honetan ezagutzera eman da, 2011ko urriaren 18ko eta azaroaren 14ko, Zerbitzuburuaren txostena eta Zerbitzu, Landa Ingurunea eta Ingurumenaren batzordearen proposamena. Lehenengoan adierazten dena da aipatutako obrak, hezkuntza ordezkariak egindako proiektuaren aurrekontua kontutan hartu zela obrak kontratatzeke, hain zuzen ere, 46.852 €ko kostuarekin, BEZ kanpo, baina lanak hasita gero antzeman zen, proiektuan aurreikusitako neurriak okerrak zirela eta beste ranpa bat egiteko aukera zegoela. Horrek gastuaren gehikuntza ekarri zuen eta obrak, 79.919, 83 €tan (BEZ barne) likidatu ziren.

Batzordeak proposatu zuen, gehikuntza gastu horren berri, Hezkuntza Ordezkaritzari ematea, dirulaguntza eskatuz (horrela egin zen baina oraindik ez da erantzunik jaso), eta hasieran onartua zegoen kredituaz gaineko fakturak, Gobernu Batzordera pasatzea onartu daitezten.

Horren ondorioz, bildutakoek aho batez onartu dute, Murumendi ikastetxeko behe-solairuko ireskortasuna hobetzearen gastua, 79.919, 83 €raino (BEZ barne) iritsi dena, lehen ordaindutakoaz gain eta aipatutako kopururaino dauden fakturak ordaindu ahal izateko.

5.- IRAGARKI OFIZIALAK. Alkate jaunak, gai hau mahai gainean uztea proposatu du, ezinezkoa izan delako gai honekiko azaldu behar zuen dokumentazioa aurkeztea.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK. Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko bederatziak eta laurdenetan amaitu da eta nik idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.